IKASGAIA (4,5 Kr)
GIZARTE ZIENTZIAK ETA BERE DIDAKTIKA II

HELBURUAK

Asignatura honen helburu nagusia gizarte arloari dagokion irakaskuntzarako prestakuntza osatzea eta eskeintzea da. Horretarako, era ezberdinetako irakas prozedurak erabiltzeko, ikas materialen balioa antzemateko eta irakas-ikas jarduerak prestatzeko premiazko gaitasun zientifiko-diziplinar eta psikopedagogikoak eskainiko zaizkio.

PROGRAMA

1.Gizarte Zientzien curriculumaren edukiak. Zientziatik ikasgelara.

2.Proiektuak, material curricularrak eta gelako baliabidek gizarte arloan.

3.Ingurunearen baliabideak eta beren erabilpen didaktikoa.

BIBLIOGRAFIA- BALIABIDEAK (JARDUERA)

Ezagutza arlo honen ardatz diren material curricular eta ingurunearen baliabideen ezagupena ikasgaietan ikastorduz kanpo tokatzen den **tutoretzako lanen** bidez egingo da.

Lan honen helburuak:

Inguru ezaguera arloa (eskola eta eskolaz kanpo) lantzeko maisu/maistrek erabiltzen dituzten edo erabili dezaketen era askotako lanabes kultural edo material curricularrak ezagutzea.

Maisu ofizioaren garapenerako behar diren lanabes materialen artean bereziki testuliburuen ezaugarriak eta potentzialtasuna identifikatzea, irizpide kritikoak eraikitzeko asmoz.